



Gutuna: “Game of hunters”-en lan egin nabiko nuke!

Egoera. Zure herria aukeratu dute telesail ospetsu baten hurrengo denboraldiko atal guztiak bertan grabatzeko. Ekoizleen arabera, toki egokia da Erdi Aroan girotutako telesaila kokatzeko. Hainbat lanetan jarduteko lan-poltsa osatuta dago. Orain, berriz, “Game of hunters”-eko arduradunek herrian bertan hautatu nahi dituzte antzezleak eta figuranteak. Antzezleen ezaugarriei dagokienez, batez ere hauexek aintzat hartuko dituzte: ibilbide artistikoa (antzezle, kantari, dantzari...), ingeles maila, zaldi gainean ibiltzeko trebetasuna...

Telesailean parte hartzeko irrikan zaude, baina ez zara ausartzen *casting*era bakarrik joaten; lagun bat bultzatu nahi duzu elkarrekin joan zaitezten. Horretarako, **eskutiz** bat idatzi behar diozu lagunari.

- **Nork:** zeuk
- **Nori:** zeure lagunari
- **Zer:** laguna parte hartzera bultzatu eta zeuri laguntzeko eskatu; zure gogoia eta interesa adierazi eta arrazoitu.
- **Nola:** posta elektronikoz edo eskutitzez.
- **Aintzat hartzekoak:** zuen gaitasun guztiak (prestakuntza artistikoa, ingeles maila, itxura fisikoa...); esperientzia ederra bizitzeko aukera.

Hitz-kopurua: gutxienez **150** hitz

Herrian abiatuta...



Hollywood-eko izar?

"GAME OF HUNTERS" Casting-a

2016ko Urriaren 26an

Kaixo, Andoni:

Zer moduz? Hilabete bat pasa da [elkar ikusi ez garenetik]! Konturatu al zara gure herrian "Game of Hunters" telesailak hurrengo denboraldiko atal guztiak grabatuko dituztela? Hura poza hartu dudana hartaz konturatu naizenean.

Gaur goizean telebista ikusten nengoela nonen berri atera da ETB-ko iragarki batean. Bertako arduradunek telesailako hainbat antzezle bilatzen ari dira eta zutaz gogoratu naiz. Ez al zara gogoratzen, lehengo urtean, egunero elkartzen ginela zure etxean telesaila ikusteko? orduak eta orduak pasatzen genituen parrez lehertzen. Ba, orain da gure momentua bertara joan eta betidaneko amets hori egi bihurtzeko.

Hasteko, antzezle artistikoak bilatzen ari direla esan behar dizut. Egia da inoiz ez garela abeslari onak izan baaina berehala jabetu nintzen orain dela gutxi, herriko plazan, dantzari apartekoa zarela. Gainera, egia esan behar badut, [eman dezakegun itxura] oso interesgarria izan daitekeela pentsatzen dut, nahiz eta aitortu behar [izan,] zu ni baino ederragoa zarela.

Horrez gain, ingeleza maila altua eskatzen dutela entzun dut. Beraz, badakizu horrekín arazorik ez genukeela izango, [hilabete pare batzuk] Ingalaterran bízitzen pasa genituen eta.

Beno, Andoni, nik proposatuko eskaeran pentsatu eta anima zaitez!

Besterik gabe

Iratxe

←	S.
←	Dek.
←	Kohs.

←	Punt. S.
←	D.Erg.

←	Lex.
---	------

←	Punt. A. Denb.
←	Lex.
←	S. Erd.

←	D.Mugg.
---	---------

←	Lex. Erd.
---	-----------

←	S. Erd.
---	---------

←	Mold.
---	-------



PROBA IDATZIA

IDAZLAN EREDUAK

IDAZLAN
LABURRA (2016ko
2. deialdia-1)

Kalifikazioa: 4

Aztertzaileen zehaztasunak: +: 2

-: 4, 9, 11, 15, 16, 17

EGOKITASUNA/ EDUKIA: 1,5

Atazan eskatutakoa bete du: hitz kopurua eta eskatutakoa bete ditu. Egoera batzuk deskribatu ditu eta iritziak ere eman ditu laguna konbentzitzen saiatzeko. Dena den, erabilitako argudioak oso xumeak dira. Ez du ideia konplexurik garatu.

**MOLDEA, KOHESIOA
ETA KOHERENTZIA: 1,5**

Ez du beti lexiko egokia erabili eta lehen hizkuntzaren eragina nabari zaio. Egiturretan ez da aberatsa.

Oro har, ideiak behar bezala lotzen ditu eta gehienetan lokailuak egoki erabiltzen ditu. Testua nahiko irakurterraza da, nahiz eta pasarte batzuk argiak ez izan.

ZUZENTASUNA: 1

Akats ugari ditu, mota askotakoak: deklinabidea (batez ere), aditza... Erdal kalkoak erabili ditu. Hitz ordenan lehen hizkuntzaren eragina du. Ortografian txukun aritu da.